Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2025eko ekainaren 20a, ostirala — 116 — Viernes, a 20 de junio de 2025



## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

*Ondasun higiezinen enkante iragarkia. Lehen eta bigarren lizitazioak.*

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko Zergabilketako Zerbitzu buruak honako hau.

Jakinarazten du: ordaintzera behartutakoaren aurka (identifikazioa alde batetara uzten da) Zerga-bilketako Zuzendariordetza Nagusi honetan izapidetzen ari den premiamenduzko administrazio prozeduran ondasunak besterentzeko erabaki hau hartu dela 2025/05/23(e)an:

«Ondasunak besterentzek erabakia:

Aztertu dira aurka (identifikazioa alde batera utzi da), irekitako premiamenduzko administrazio prozedurako jarduketak. Hori dela eta, ikusi da, prozedurako zorrak premiatuta eta jakinarazita baina ordaindu gabe egonik, diligentzia eman zela ondasun higiezinak edota eskubideak bahitzeko 2022/07/01(e)an. Diligentzia horren bidez, K letrako bahitura idaztoharra egin zen 39334 zenbakia duen finkaren gainean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren alde Irungo Jabetza Erregistroan.

Hona hemen bahitu diren ondasun higiezinak:

— Lote bakarra.

Hirikoa: Hamabost zenbakia. Irungo Ventas auzoan dagoen, egun Gabiria kalea, industria pabiloi batez osatutako industria multzoaren 15 zenbakia duen industria lokalaren 1. solairua, berrehun eta hogeita bost metro karratu dituena.

Mugak: iparraldean, hamar lokala eta elektrizitatearen kontagailu gela; hegoan, sarbidea; ekialdean, hamalau industria lokala eta mendebaldean, kalea eta kontagailuen gela. Kuota: ehuneko lau oso eta zortzi ehuneko.

*Jabetza:* % 100 jabetza osoa.

*Erregistro erreferentzia:* Liburukia: 1331, Liburua: 1009, Orria: 186, Finka: 39334, Erregistroa: Irun.

*Balorazioa*: 172.257,75 €.

*Lehentasunezko kargak*: 87.549,23 €.

*Enkantearen oinarria*: 84.708,52 €.

Honen bidez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergabilketa Erregelamenduak, abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuak onartutakoa, bere 104. artikuluan jasotakoari jarraituz,

AGINTZEN DUT

Ondasun bahituak enkante ireki bidez besterentzea. Izan ere, bahitura edo bahiturak ekarri dituen zorra irmoa da, eta, beraz, hari dagokionez ez dago ebatzi gabeko errekurtso edo erreklamaziorik.

Enkantea 2025/07/09(e)an egingo da 13:00etan Gipuzkoako Foru Ogasunen egoitzan, Errotaburu Pasealekua, 2, Donostia. Lizitazio horretarako enkante oinarria lehenago adierazitakoa

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

*Anuncio de subasta en primera y segunda licitación de bienes inmuebles.*

El Jefe del Servicio de Recaudación del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Hace saber: Que en el procedimiento administrativo de apremio que se tramita en esta Subdirección General de Recaudación contra la persona obligada al pago (se omite la identificación), con fecha 23/05/2025, ha sido dictado el siguiente acuerdo de enajenación:

«Acuerdo de enajenación:

Examinadas las actuaciones del procedimiento administrativo de apremio dirigido contra (se omite identificación), se observa que estando las deudas comprendidas en el mismo apremiadas y notificadas sin que se hubiesen solventado, se procedió a dictar diligencia de embargo de bienes inmuebles y/o derechos de fecha 01/07/2022, que causó en el Registro de la Propiedad de Irun la anotación de embargo letra K respecto a la finca n.º 39334, a favor de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Los bienes inmuebles embargados responden al siguiente detalle:

— Lote único.

Urbana: Número quince. Local industrial número quince en la planta primera del conjunto industrial formado por un pabellón industrial en el barrio de Ventas de Irun, hoy calle Gabiria número quince, de doscientos veinticinco metros cuadrados.

Linda: al norte, local diez y cuarto de contadores de electricidad; sur, acceso; este, local industrial catorce y oeste, calle y cuarto de contadores. Cuota: cuatro enteros ocho centésimas por ciento.

*Propiedad*: 100 % pleno dominio.

*Referencia registral*: Tomo: 1331, Libro: 1009, Folio: 186, Finca: 39334, Registro: Irun.

*Valoración*: 172.257,75 €.

*Cargas preferentes*: 87.549,23 €.

*Tipo de Subasta*: 84.708,52 €.

Conforme a lo dispuesto en el artículo 104 del Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa, aprobado por Decreto Foral 38/2006, de 2 de agosto,

ORDENO

La enajenación de los bienes embargados mediante subasta pública, toda vez que la deuda que ha motivado el embargo o embargos es firme, no habiendo por tanto recurso o reclamación pendiente respecto a la misma.

En primera licitación la subasta tendrá lugar el 09/07/2025 a las 13:00 horas en el edificio de la Hacienda Foral de Gipuzkoa, Paseo de Errotaburu, n.º 2 de San Sebastián, siendo el tipo

EK\CV GAO-I-2025-04530

izango da, hau da, lehen lizitaziokoa; zilegi da lote bakarrarentzako gutxienez enkante oinarriaren ehuneko laurogei osatzen duten eskaintzak egitea.

Enkantearen lehen lizitazio honetarako eskaintzak aurrez aurre edo telematikoki aurkeztu ahal izango dira, azken hori Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez: https://egoitza.gipuzkoa.eus.

Lehen lizitazioa egin ondoren lotea esleitu gabe geratzen bada eta zorra lotearen ondasunen kargura exijitu badaiteke, enkantearen bigarren lizitazioa egingo da, 2025/07/11(e)an 13:00etan Gipuzkoako Foru Ogasunen egoitzan, Errotaburu Errotaburu Pasealekua, 2, Donostia. Lizitazio horretan zilegi izango da gutxienez enkante oinarriaren ehuneko berrogeita hamar osatzen duten eskaintzak egitea.

Bigarren lizitazioan ere ez bada esleitzen eta zor exijigarria lotearen ondasunen kargura geratzen bada, ondasunak Gipuzkoako Foru Aldundiari esleitzeko tramiteak hasiko dira, hain zuzen lehenago aipatutako Zergabilketako Erregelamenduak 114.etik 118.era bitarteko artikuluetan araututa daudenak.

Jakinaraz bekio besterentzeko erabaki hau ordaintzera behartuari, beraren ezkontideari edo izatezko bikoteari, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskubidearen ondoren dena delako erregistro publikoan inskribatutako eskubideen titular diren eta premiamenduzko espediente administratiboan jasotako karga ziurtapenean agertzen diren horiei hartzekodun hipotekarioak eta pignoratizioak, gordailuzaina, Administrazioaz bestekoa bada eta, halakorik badago, enkantean jartzekoak diren ondasunen jabekideak eta haiek dauzkaten hirugarrengoak barne, betiere Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergabilketa Erregelamenduak, abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuak onartutakoa, bere 104.2 artikuluan jasotakoari jarraituz.

Behin jakinarazpenak eginda, enkante iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean emango da argitara, Zergabilketako Erregelamendu horrek 104.5 artikuluan jasotako baldintzak betez.»

Jabetza egoera:

Espedientean jasota dago higiezinean jarduera ekonomikoa duen errentari bar dagoela.

Lizitatzaileei hau jakinarazten zaie, ondasunak besterentzeko aurreko erabakian jasotakoaz gain:

1. *Lizitatzaileak.*

Zuzenbidearen arabera jarduteko ahalmena duten pertsona fisiko zein juridiko guztiek hartu dezakete parte nahitaezko besterentzean, betiere beren eskaintzarekin konpromisoa hartzeko legezko eragozpen edo murrizpenik ez badute.

Gipuzkoako Foru Aldundiak inolako gordailu edo fidantzarik eratu gabe hartu ahal izango du parte ondasun eta eskubideen enkantean, edozein lizitatzaileren baldintza berdinetan.

Ondasunak esleitu aurreko edozein momentutan eten daiteke besterentze prozesua, zorrak eta prozeduraren kostuak ordainduz gero.

Erregistro publikoetan inskriba daitezkeen ondasunak direnean, lizitatzaileek espedientean jasota dauden jabetza tituluak baino ezingo dituzte exijitu.

Lizitazioa bukatuta, besterentze mahaiko buruak fidantzak itzuliko dizkie adjudikaziodun suertatu ez diren lizitatzaileei, banku transferentziaren bidez.

Adjudikaziodunen gordailuak atxikita geratuko dira salmenta prezioaren kontura, halako moduz non ordainketa ez bada egiten hura osatzeko ezarri den epean, fidantzaren zenbatekoa galduko baitute, obligazio hori ez betetzeak sorraraz ditzakeen kalte handiagoak Administrazioari ordaintzea eragotzi gabe.

Adjudikazioa jasotzen duen lizitatzaileak hilabeteko epea du, adjudikazioaren egintzatik aurrera, eratutako gordailuaren eta adjudikazio prezioaren arteko diferentzia ordaintzeko, eta, hala

de subasta para esta licitación el señalado anteriormente, admitiéndose para el lote único posturas que cubran al menos el ochenta por ciento del tipo de subasta.

La presentación de ofertas para esta primera licitación de la subasta podrá realizarse tanto de forma presencial cono telemáticamente, esta última a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa https://egoitza.gipuzkoa.eus.

Si no se adjudica el lote en la primera licitación y queda por tanto deuda exigible con cargo a los bienes que lo componen, se procederá, a la celebración de la subasta en segunda licitación, el 11/07/2025 a las 13:00 horas, en el edificio de la Hacienda Foral de Gipuzkoa, Paseo de Errotaburu, n.º 2 de San Sebastián, admitiéndose posturas que cubran al menos el cincuenta por ciento del tipo de subasta.

Si tampoco se adjudica en segunda licitación y queda deuda exigible con cargo a los bienes que lo componen, se iniciarán los trámites de adjudicación de bienes a la Diputación Foral de Gipuzkoa en pago de deuda, regulados en los artículos 114 a 118 del precitado Reglamento de Recaudación.

Tal y como establece el artículo 104.2 del Reglamento de Recaudación del Territorio Histórico de Gipuzkoa, aprobado por Decreto Foral 38/2006, de 2 de agosto, notifíquese este acuerdo de enajenación a la persona obligada al pago, a su cónyuge o pareja de hecho, a los titulares de derechos inscritos en el correspondiente registro público con posterioridad al derecho de la Diputación Foral de Gipuzkoa que figuren en la certificación de cargas que conste en el expediente administrativo de apremio, incluyendo entre esos titulares posteriores a los acreedores hipotecarios y pignoraticios, al depositario, si es ajeno a la Administración, y en caso de existir, a los copropietarios y terceros poseedores de los bienes a subastar.

Practicadas las citadas notificaciones se publicará en el Boletín Oficial de Gipuzkoa el anuncio de subasta con los requisitos establecidos en el artículo 104.5 del mencionado Reglamento de Recaudación.»

Situación posesoria:

Consta en el expediente la existencia de un arrendatario con actividad económica en el inmueble.

Se informa a los licitadores, además de lo transcrito en el acuerdo de enajenación que antecede, de lo siguiente:

1. *Licitadores.*

Podrán tomar parte en la enajenación forzosa todas las personas, físicas o jurídicas, que tengan capacidad de obrar con arreglo a derecho y no tengan impedimento o restricción legal para comprometerse con su oferta.

La Diputación Foral de Gipuzkoa podrá concurrir a la subasta de bienes y derechos, sin necesidad de depósito ni fianza alguna, y en las mismas condiciones que cualquier licitador.

El proceso de enajenación se suspenderá en cualquier momento anterior a la adjudicación de los bienes si se hace el pago de las deudas y costas del procedimiento.

Cuando se trate de bienes inscribibles en registros públicos, los licitadores no tendrán derecho a exigir otros títulos de propiedad que los aportados en el expediente.

Finalizada la licitación de que se trate, se procederá por el Presidente o Presidenta de la Mesa de enajenación a la devolución de las fianzas a los licitadores no adjudicatarios, a través de transferencia bancaria.

Los depósitos de los adjudicatarios serán retenidos a cuenta del precio de venta, de modo que, si en el plazo de que dispone para completar el pago, éste no se realiza, perderán el importe de la fianza, sin perjuicio de la obligación de resarcir a la Administración de los mayores perjuicios que origine el incumplimiento de tal obligación.

El licitador que resulte adjudicatario quedará obligado a efectuar dentro del plazo de un mes desde el acto de adjudicación el ingreso de la diferencia entre el depósito constituido y el precio

EK\CV GAO-I-2025-04530

egin ezean, eraginik gabe geratuko da adjudikazioa. Diru-sarrera egiteko, larunbata ez da kontuan hartuko inola ere. Diferentzia hori Kutxabank-eko ES37 2095 0611 01 1061817176 kontu korrontean sartuko da.

Enkante neurrian ez daude sartuta eskualdaketa kargatzen duten zeharkako zergak. Adjudikaziotik ondorioztatzen diren gastu guztiak, hala fiskalak nola erregistrokoak, eta finkaren titulartasuna aldatzeak dakartzanak, adjudikaziodunaren kontura joango dira.

*2. Eskaintzak aurkeztea eta enkantea egitea lehen lizitazioan.*

2A) Eskaintzak presentzialki aurkeztea enkantearen lehen lizitazioan.

Lehenengo lizitazioan, eskaintzak Zergabilketa Zerbitzuan aurkeztu eta entregatuko dira zuzenean eta pertsonalki (Helbidea: Errotaburu pasealekua 2, 0 solairua, Donostia), 8:30etik 14:00etara. Ezinbestekoa izango da hitzordua aurrez hartzea Zerga-bilketa Zerbitzuko zenbaki hauetan: 943.113.266 edo 943.113.554.

Eskaintzak aurkezteko epea enkante iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean hasi eta haiek irekitzeko adierazitako eguna iritsi aurreko azken egun baliodunean amaituko da, biak barne. Azken egun baliodun horretan, eskaintzak eguerdiko 12:00ak arte aurkeztu ahal izango dira.

Eskaintzak idatziz aurkeztu beharko dira, dokumentazio hau erantsita:

— Lizitatzailearen nortasun agiriaren kopia soila, jatorrizkoarekin behar bezala erkatua, eta, hala badagokio, bere gain hartutako ordezkaritza frogatzen duen dokumentu edo eskritura publikoarena.

— Kutxabank-eko ES37 2095 0611 01 1061817176 kontu korrontean fidantza sartu izanaren frogagiriaren jatorrizko alea edo haren kopia soila, jatorrizkoarekin behar bezala erkatua. Lote bakoitzerako fidantzaren zenbatekoa lehen lizitazioko enkante neurriaren ehuneko hamarra izango da.

Kontu korronte horretan sartutako fidantzaren balio datak enkantearen lehen lizitaziorako ezarritako egunarena edo aurreko batena izan behar du.

— Lizitatzaileak sinatutako idazkia, lizitatzeko asmoa duela adierazi eta zer lote aukeratu nahi duen azaldu behar duena.

— Kartazal itxia, eskaintzen den zenbatekoa idatzita jaso behar duena eta lehen lizitazioko enkante neurriaren gutxienez ehuneko laurogeia estali behar duena. Kartazalaren kanpoaldean, aukeratutako lotearen erreferentzia adierazi beharko da argi eta garbi.

Aurkeztutako dokumentazioaren frogagiria emango zaio aurkezleari, zein egunetan eta zer ordutan aurkeztu duen zehatz-mehatz adierazita. Hori guztia espedientean jasota geratuko da. Behin eskaintza aurkeztuta, hura ezingo da inola ere erretiratu.

2B) Eskaintzak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztea lehen lizitazioko enkantean.

Enkantearen lehen lizitazioan bitarteko elektronikoak erabili nahi badira eskaintzak aurkezteko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikora jo beharko da https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu helbidean sartuz (Gipuzkoatariko online izapideetarako sarbidea). Aurkezpenaren baldintzak modu presentzialean aurkezteko aurreikusitako berberak izango dira.

Besterentze mahaia eratutakoan, ondasunen zerrenda irakurriko da loteka, baita enkantearen baldintzak ere, iragarki honetan jasotakoaren arabera.

Horren ondoren, Mahaiak lizitatzaileek lote multzorako aurkeztutako dokumentazioa aztertuko du, eta hura ontzat emanez gero, kartazalak irekiko dira barruan jasotzen den zenbatekoa ezagutzeko. Gutxienez exijitzen den minimora iristen den eskain-

de adjudicación, deviniendo en caso contrario ineficaz la adjudicación. A efectos del ingreso el sábado no computará en ningún caso. El ingreso de dicha diferencia deberá realizarse en la cuenta corriente ES37 2095 0611 01 1061817176 de Kutxabank.

En el tipo de subasta no se incluyen los impuestos indirectos que gravan la transmisión. Todos los gastos fiscales y registrales derivados de la adjudicación, así como los gastos afectos al cambio de titularidad de la finca serán por cuenta del adjudicatario.

*2. Presentación de ofertas y desarrollo de la subasta en primera licitación.*

2A) Presentación de ofertas de forma presencial en la subasta en primera licitación.

En la primera licitación las ofertas se dirigirán y entregarán directa y personalmente en el Servicio de Recaudación, Paseo Errotaburu n.º 2 (planta 0) de San Sebastian, en horario de 8:30 horas a 14:00 horas. Será imprescindible coger cita en los siguientes números del Servicio de Recaudación: 943.113.266 o 943.113.554.

Las ofertas se presentarán entre el día de la publicación del anuncio de subasta en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, y el último día hábil anterior al señalado para la apertura de ofertas, ambos inclusive. El mencionado último día hábil, el horario de presentación finalizará a las 12:00 horas.

Las ofertas que se formulen deberán hacerse por escrito y constarán de la siguiente documentación:

— Copia simple debidamente cotejada del Documento Nacional de Identidad del licitador y, en su caso, escritura pública o documento que justifique la representación que ostenta.

— Original o copia simple debidamente cotejada del documento justificativo de la fianza efectuado en la cuenta corriente número ES37 2095 0611 01 1061817176 de Kutxabank. El importe de la fianza para cada lote será del diez por ciento de su tipo de subasta en primera licitación.

La fecha valor del ingreso del importe de la fianza en esa cuenta corriente deberá ser igual o anterior a la fecha señalada para la celebración de la primera licitación de la subasta.

— Escrito firmado por el licitador en el que se indica la intención de licitar y el lote al que se opta.

— Sobre cerrado que incluya escrita la cuantía que se ofrece, y que deberá cubrir al menos el ochenta por ciento del tipo de subasta en primera licitación. En el exterior del sobre deberá indicarse de manera suficiente la referencia del lote al que se opta.

De la documentación presentada se expedirá el oportuno recibo al presentador, con expresión del día y hora exacta de la entrega y de cuyos extremos quedará constancia en el expediente. Una vez entregada la oferta, ésta no podrá retirarse en caso alguno.

2B) Presentación de ofertas por medios electrónicos en la subasta en primera licitación.

La presentación de ofertas por medios electrónicos en la subasta de primera licitación se realizará a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa https://egoitza.gipuzkoa.eus/es (Acceso a Trámites online Gipuzkoataria) y en las mismas condiciones que las previstas para la presentación de ofertas de forma presencial.

Una vez constituida la Mesa de enajenación, dará comienzo el acto con la lectura de la relación de bienes en lotes y de las condiciones por las que se ha de regir la subasta, según el presente anuncio.

A continuación, se examinará por la Mesa la documentación presentada por los licitadores para el grupo de lotes; admitida la misma, se abrirán las ofertas que contienen la cuantía que se ofrece y la Mesa adjudicará dicho lote a la mejor oferta que al me-

EK\CV GAO-I-2025-04530

tzarik onenari adjudikatuko dio Mahaiak lotea. Lote berberaren gainean berdinak diren bi eskaintza egonez gero, espedientearen eta luzatutako frogagirien arabera lehenago jaso den eskaintzari adjudikatuko zaio lotea.

Gainerako loteekin ere modu berean jokatuko da, etenik gabe eta elkarren segidan.

Egintza amaitutzat joko da adjudikatutako ondasunen zenbatekoak exijitutako zor osoa estali bezain pronto.

Enkantearen lehen lizitazioa bukatuta, akta jasoko da, eta eskatzen duten lizitatzaileei haren kopia emango zaie.

Lehen lizitazioa egin ondoren loteren bat adjudikatu gabe geratzen bada eta hura osatzen duten ondasunen kargura exijitu daitekeen zorrik badago, bigarren lizitazio bat egingo da besterentze erabakian eta enkantea lehen eta bigarren lizitazioan egiteari buruzko iragarkian zehaztutako baldintzei jarraikiz.

*3. Eskaintzen aurkezpena eta enkantearen bigarren lizitazioa.*

Bigarren lizitazioan, enkante neurriaren gutxienez ehuneko berrogeita hamarra estaltzen duten eskaintzak onartuko dira lote bakoitzerako.

Bigarren lizitazio honetan eskaintzak aurkeztu ahal izateko, lizitatzaileek besterentze mahaiaren aurrean aurkeztu beharko dute ezarritako egunean eta orduan, nortasun agiria erakutsi beharko dute beren burua identifikatzeko, eta Kutxabank-eko ES37 2095 0611 01 1061817176 kontu korrontean fidantzaren zenbatekoa sartu izanaren frogagiriak entregatu beharko dituzte pertsonalki. Fidantzaren zenbatekoa lote bakoitzerako aurreikusitako enkante neurriaren ehuneko hamarra izango da.

Kontu korronte horretan sartutako fidantzaren balio datak enkantearen bigarren lizitaziorako ezarritako egunarena edo aurreko batena izan behar du.

Lote jakin baterako gordailatutako fidantzak eratutzat joko dira, balio osoz, ondoz ondoko loteen lizitazioan parte hartu ahal izateko, baldin eta, aurretik adjudikatu den lote bati aplikatuta agortu Gabe egonik, haien zenbatekoak lizitatzen den loterako eskatutako gutxienekoa estaltzen badu.

Era berean, hirugarren baten ordezkaritzan jarduten badute, aurretik ordezkaritza hori frogatu behar diote Mahaiari, modu sinesgarrian.

Lizitatzaileak eta gordailuak behin identifikatu eta onartuta, irekitzat emango da ekitaldia, onartuz joango dira hitzez egiten diren eskaintzak, eta, azkenean, egiten den eskaintzarik onenari esleituko zaio lotea. Norgehiagoka amaitutzat emango da eskaintzarik altuena ahoz hiru aldiz errepikatu eta hura gainditzen duenik ez dagoenean. Horrelakoetan, eskaintzarik onenari adjudikatuko zaio lotea.

Enkantearen bigarren lizitazioa bukatuta, akta jasoko da, eta eskatzen duten lizitatzaileei haren kopia emango zaie.

Bigarren lizitazioaren ondoren loteren bat adjudikatu gabe geratzen bada eta hura osatzen duten ondasunen kargura exijitu daitekeen zorrik badago, tramiteak hasiko dira ondasunak Gipuzkoako Foru Aldundiari zorraren ordainez adjudikatzeko.

Donostia, 2025eko ekainaren 16a.—Juan Carlos Gónzalez Lombo, Zerga Bilketako zerbitzu burua. (4530)

nos cubra el importe mínimo exigible. En caso de existir dos ofertas idénticas sobre el mismo lote, se adjudicará a aquella que primero se recibió en el tiempo, según lo que resulte del expediente y de los recibos que a tal efecto se expidieron.

Sin interrupción y de forma sucesiva se procederá de igual manera respecto de los demás lotes existentes.

El acto se dará por terminado tan pronto como se cubra la totalidad de la deuda exigible con el importe de los bienes adjudicados.

Finalizada la subasta en primera licitación, se levantará la correspondiente acta, de la que se entregará copia a los licitadores que así lo soliciten.

Si tras la primera licitación quedase algún lote sin adjudicar y deuda exigible con cargo a los bienes que lo componen, se procederá a una segunda licitación en las condiciones expuestas en el acuerdo de enajenación y anuncio conjunto de subasta en primera y segunda licitación.

*3. Presentación de ofertas y desarrollo de la subasta en segunda licitación.*

En segunda licitación se admitirán para cada lote posturas que cubran al menos el cincuenta por ciento del tipo de subasta.

Para poder pujar en esta segunda licitación, los licitadores deberán presentarse el día y a la hora fijada para su celebración ante la Mesa de enajenación, identificarse con el documento acreditativo de su personalidad que corresponda y entregar personalmente los resguardos justificativos de haber ingresado en la cuenta corriente número ES37 2095 0611 01 1061817176 de Kutxabank el importe de la fianza, que será para cada lote del diez por ciento del tipo de subasta previsto para ese lote.

La fecha valor del ingreso del importe de la fianza en esa cuenta corriente deberá ser igual o anterior a la fecha señalada para la celebración de la segunda licitación de la subasta.

Se considerarán válidamente constituidas para poder tomar parte en la licitación de los sucesivos lotes aquellas fianzas depositadas para un determinado lote que no hayan sido agotadas por aplicación a un lote previamente adjudicado, siempre que su importe cubra el mínimo exigido para el lote para el que se quiera pujar.

Asimismo, si actuasen en representación de un tercero, deberán acreditar previa y fehacientemente ante la Mesa la representación que dijesen ostentar.

Identificados y admitidos los licitadores y los depósitos, se declarará abierto el acto y se irán admitiendo las sucesivas pujas que de viva voz se vayan haciendo, adjudicándose el lote a la mejor oferta que finalmente se manifieste. En tal sentido, la puja se dará por terminada cuando, repetida hasta por tercera vez la más alta, no haya quien la supere, adjudicándose el lote al mejor postor.

Una vez finalizada la subasta en segunda licitación, se levantará la correspondiente acta, de la que se entregará copia a los licitadores que así lo soliciten.

Si quedase algún lote por adjudicar tras esta segunda licitación y deuda exigible con cargo a los bienes que lo componen se iniciarán los trámites de adjudicación de bienes a la Diputación Foral de Gipuzkoa en pago de deuda.

San Sebastián, a 16 de junio de 2025.—El jefe del Servicio de Recaudación, Juan Carlos Gónzalez Lombo. (4530)

EK\CV GAO-I-2025-04530